



## **2016KO URTARRILAREN 18AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-**

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2016ko urtarrilaren 18an, 19:10tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZARRAREN LEHENDAKARIA: Josu Amilibia Alsua  
ALEGIAKO UDALA: Unai Iraola Aguirrezabala  
ALTZOKO UDALA: Josu Astrain Azkona  
AMEZKETAKO UDALA: Iñaki Amundarain Tolosa  
ANOETAKO UDALA: Aratz Luisa Urkola  
ASTEASUKO UDALA: Joseba Txapartegi Nieve  
BERASTEGIKO UDALA: Amaia Azkue Eizagirre  
IBARRAKO UDALA: Mikel Agirrezabala  
IKAZTEGIETAKO UDALA: Bakarne Otegui Jauregui  
IRURAKO UDALA: Jose Ramon Epelde Irizar  
LARRAULGO UDALA: Aritz Sarria  
LIZARTZAKO UDALA: Jose M<sup>a</sup> Sarasola Etxeberria  
TOLOSAKO UDALA: Patxi Amantegi Zubiria  
VILLABONAKO UDALA: Ivan Aguirre Saiz  
ZIZURKILGO UDALA: Aitor Sarasua Arruti

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ALBIZTURKO UDALA: Carlos Ugartemendia Leunda  
BALIARRAINGO UDALA: Martzelino Dorransoro Galarraga  
BELAUNTZAKO UDALA: Silvia Moneo Cid  
BERROBIKO UDALA: Joseba Iñigo Aiertza Mujika  
ELDUAINGO UDALA: Miren Amaia Askasibar Agirre

### **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. Tolosaldea Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan hiri hondakinen kudeaketarako oinarrizko irizpideen onespena.**
- 2. 2016 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2016 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, ekarpenak egiteko araua, egutegia eta udalen ekarpen sistemaren onspena.**

3. **Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, hiri hondakinen eta garraio zerbitzuaren ingurukoa.**
4. **Kontratazio espedientea: Albo kargako edukiontzien bilketarako kamioiaren hornidura arautuko duen baldintza plegu administratibo eta tekniko onespena.**
5. **Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek ekintzaren fede ematen dio ekintzari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Andoain, Gaztelu, Hernialde, Leaburu eta Orendaingo ordezkari gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkari jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANDOAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

HERNIALDEKO UDALA: Ordezkaria, Jon Umerez Urrezola.

LEABURU-TXARAMAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ORENDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **1. Tolosaldea Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan hiri hondakinen kudeaketarako oinarrizko irizpideen onespena.**

Idazkariak irakurri ditu proposaturiko irizpideak, hitzez-hitz horrela diotenak:

*“1-Herri bakoitzak bere bilketa sistema aldatzeko eskubidea izango du, hirugarren bati ekonomikoki eta operatiboki eragiten ez dion neurrian edo, eragiten dion neurrian, kostu gehigarri horren ardura bilketa aldaketa egiten duen udalak asumitzen badu.*

*2- Herri bakoitzak sortu eta gaika biltzen duenaren gaineko ordainketa egingo du, gaur egun indarrean dagoen fiskalitatea jarraituz.*

*3- Bilketa sistemaren azpiegiturak (kuboak, edukiontzia, txintxilarioak,..) herri bakoitzak erabakitzen duen bilketa sistemaren arabera ordainduko ditu.*

*4-Mankomunitateak bestelako azpiegiturak ordainduko ditu, hau da, fijoak eta udalerrri guztiek erabiliko dituztenak, hala nola, kamioi, bulegoko edota pertsonal gastuak.*

*5-Bilketa sistema aldatu nahi duen herriak, proposatzen duen bilketaren txosten tekniko-ekonomiko bat aurkeztu beharko dio mankomunitateari. Azterketa honek sistemaren deskribapena, gaikako bilketaren*

*aurreikuspen arrazoitua eta bilketa eta tratamendu kostuak kontutan edukiko dituen azterketa ekonomiko bat barneratu beharko ditu. Gaikako bilketaren pontzentzaiaren aurreikuspena %60tik beherakoa den txostenik ez du onartuko Mankomunitateak.*

*6- Mankomunitateko herri guztiek konpromisoa hartzen dute 2016ko abenduaren 31rako %60tik gorako gaikako bilketa tasa lortzea. Ehuneko hori lortzeko Mankomunitate eta herriaren artean adostuko dira neurri zuzentzaileak. Mankomunitateak penalizazio sistema bat onartu dezake bere kasuan.”*

---

19:11tan Abaltzisketa eta Orexako ordezkariak bertaratzen dira.

---

Lehendakariak hitza hartu du adierazteko udalerrri guztien artean adostutako irizpideak direla, eta galdetu die batzarkideei ea zalantzarik duten honen inguruan. Bildutako inork ez duenez ezer adierazi, oinarrizko irizpide hauek bozkatzeari ekin zaio.

Bozketaren ondoren, Batzarrak, ahobatez,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Azalpen zatian adierazitako irizpideak onartzea.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten herri guztiei.

### **2. 2016 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2016 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, ekarpenak egiteko araua, egutegia eta udalen ekarpen sistemaren onespena.**

2015. urtean Mankomunitateko Kontuhartzaile izan den Alkizako Idazkari-Kontuhartzaileak azaldu du 2016 ekitaldirako aurrekontuaren espedientea. Lehenik, onspen prozedura esplikatu du: Batzarrak onartzen badu, GAOan publikatuko litzateke 15 egunetan, alegazioak aurkezteko. Ez badago alegaziorik, 2016ko aurrekontua behin-betiko onartua geratuko litzateke.

Jarraian, aurrekontuaren txostena azaldu da. Bertan aipatzen denez, 2016rako mankomunitatearen onarpen espedienteak ez du betetzen 2016rako gastuaren araua, 2015 eta 2016 ekitaldien artean gastu konputagarriaren bariazioa %3,1 delako, eta, ondorioz, 2016rako ezarritako helburua (%1,8) baino handiagoa delako.

Beraz, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2015eko azaroaren 25ean publikatua GAOan) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udaltzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2016rako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetetzearren komunikazioa aurkezten zaio Batzarrari adieraziz:

- 2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2016rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

2015eko likidazioa egin gabe dago oraindik, baina positiboa izango dela aurreikusten da.

2014ko diruzaintza gerakina (1.700.000 € inguru) 2015 ekitaldian erabili da (500.000 € inguru).

Aurrekontuaren gastuei eta sarrerei buruz, esan daiteke orekatuak agertzen direla. Ondorengo taulan jasotzen dira 2016 urtekoak:

	<b>SARRERAK</b>	
<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
IV	Transferentzia arruntak	5.384.406,00
V	Ondare sarrerak	348.200,00
	<b>Guztira Sarrerak</b>	<b>5.732.606,00</b>
	<b>GASTUAK</b>	
<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Euroak</i>
I	Pertsonal gastuak	110.000,00
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.580.606,00
IV	Transferentzia	24.000,00

	arruntak	
VI	Inbertsio errealak	18.000,00
	<b>Guztira Gastuak</b>	<b>5.732.606,00</b>

Sarrerei dagokienez, hauek dira iturriak:

- 1- Udal ekarpenak (IV kapitulua),
- 2- Ondare sarrerak (V kapitulua, Ecoembes Puntu Berdea eta bilketatik jasotzen direnak).

Jarraian, Sarreren sailkapen ekonomikoa azaldu da. Aurrekontuaren espedientean atxikitutako taulan ikusi daiteke kontzeptu bakoitzak suposatzen duen pisua (portzentaian). Azpimarragarrienak hauek dira:

- 1- Udal ekarpenak: % 78,41
- 2- Ecoembes Puntu Berdea: % 14,65
- 3- Bestelako hiri hondakinen sarrerak: % 5,76

Sarreren atalarekin amaitzeko, irizpideak azaltzen dituen txostena aipatzen da. Hauek dira garrantzitsuenak:

1- Udal ekarpenak: 2014. urtean irizpide berriak proposatu eta onartu ziren. Aurtengo ekarpenak irizpide horiek jarraituta egin dira: alde batetik, zati finko bat, amankomunean diren gastuei aurre egiteko, hau da, bilketa sistema eta gastu estrukturalen (azken hauek biztanleko banatzen direlarik), eta, bestetik, zati aldakorra, udal bakoitzak jasotzen dituzten zerbitzuen kostetan oinarrituta, hau da, errefusa eta organikoaren tratamendu kostea.

Posible denez Tolosa eta Iruran bilketa sistema aldatzea (hurrengo puntuan jorratuko da gai hau), 2016ko udal ekarpenak aldatzea honen arabera kalkulatu dira. Iazko ekarpenekin alderatuta, aurtengo ekitaldiakoak jaitsi egin dira bere zati finkoan, %10 inguru. Hondakinen tratamenduari buruz, 2016rako errefusaren tratamendu gastuak %20an igo ditu Gipuzkoako Hondakin Kontsurtzioak, beraz, igoera honek ere aurrekontuan bere islada izan du.

2- Aurreko ekitaldian baliabideengatik lortutako etekina errepikatuko da. Alde batetik hondakinen aprobetxamenduagatik jasotzen diren etekinak (5. Kapituluaren), eta bestalde puntu berdea (ECOEMBES) sistemaren kudeaketatik sortzen diren diru-laguntzak (4. Kapituluaren).

3- GFA diru-laguntzak: momentuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak onesturiko ondorengo diru-laguntzak aurreikusten dira:

-Autokonpostajearen ezarpena eta jarraipen zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan (IV. Fasea):

- 2016 ko aurrekontuaren gain: 33.191,04€  
-Hondakin arriskutsuen bilketarako etxolak:
- 2016 ko aurrekontuaren gain: 13.298,52€  
-Pixoil berrerabilgarrien sustapenerako kanpaina:
- 2016 ko aurrekontuaren gain: 3.228,04€

Gastuen atalari buruz, hauek dira azpimarragarriak:

- 1. kapitulua “pertsonal gastuak”: Plantila organikoa aldatu egiten da. Lan bolumena dela eta, Idazkaritzako Administrariaren lan jarduera % 50etik % 100 izatera proposatzen da.

Honen inguruan, Idazkariak hitza hartzen du, esanez espero dela arazorik ez izatea aldaketa hau onartzeko garaian. Ez dira langile gehiago kontratatzen, baina soldata gastuak igoera daukate. Bere garaian, plaza hau sortu zenean, aurreikusten zen denborarekin lanaldi osorako bihurtzea, beraz, badaude euskarriak aldaketa hau defendatzeko.

- 2. kapitulua “gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan”:

- Behar beharreko gastuak mantendu dira.
- Gastu ustekabeak (226.99.929.00): apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa, 31. Atalean araututakoa betetzeko, udal aurrekontuan 145.000,00€ jarri dira, ustekabeak gastuei aurre egiteko.

4. Kapituluaren “Transferentzi Arruntak”: Idazkaritza eta Kontuhartzaitzako funtzioak betetzen dituzten funtzionarioei ordaindu ahal izateko baliabide ekonomikoak transferitzea aurreikusi da udalei, lanpostu hauek sortu eta formalki martxan jarri bitartean.

6. Kapituluaren “Inbertsioak”. Aipagarriak:

- Edukiontzia berriak erosiko dira.

---

19:20tan Alkizako ordezkaria bertaratzen da

---

Jarraian, ondorengo taula erakutsi da, 2016ko udal ekarpenei dagokiona, kasu honetan zabor bilketa zerbitzuan aldaketarik egin gabe:

UDALEN EKARPENA: ZABOR BILKETA ZERBITZUAN ALDAKETARIK EGIN GABE.										
EKARPEN FINKOA							EKARPEN ALDAKORRA			
HERRIA	BIZTANLEAK	GASTU FINKOA				UDALEN EKARPEN FINKOA	HERRIA	GASTU ALDAKORRA	SARRERA ALDAKORRA	UDALEN EKARPEN ALDAKORRA (GASTUA - SARRERA)
		ZABOR BILKETA ZERBITZUA			GAINERAKO GASTU ESTRUKTURALAK					
		ESPLOTAZIOA	INBERTSIOAK	GUZTIRA ZABOR BILKETA KOSTUA						
ABALTZISKETA	329	7.226	2.525	9.750,78	5.111,32	14.862	ABALTZISKETA			
ADUNA	471	34.365	3.614	37.978,92	7.317,42	45.296	ADUNA			
ALBIZTUR	327	6.539	2.509	9.048,02	5.080,25	14.128	ALBIZTUR			
ALEGIA	1.744	91.685	13.383	105.067,96	27.094,66	132.163	ALEGIA			
ALKIZA	373	7.964	2.862	10.826,68	5.794,90	16.622	ALKIZA			
ALTZO	400	12.847	3.070	15.916,81	6.214,37	22.131	ALTZO			
AMEZKETA	968	15.865	7.428	23.293,67	15.038,78	38.332	AMEZKETA			
ANDOAIN	14.655	576.555	112.461	689.016,15	227.679,05	916.695	ANDOAIN			
ANOETA	1.893	100.034	14.527	114.560,94	29.409,52	143.970	ANOETA			
ASTEASU	1.523	57.807	11.687	69.494,79	23.661,22	93.156	ASTEASU			
BALIARRAIN	130	4.163	998	5.160,64	2.019,67	7.180	BALIARRAIN			
BELAUNTZA	260	3.926	1.995	5.921,02	4.039,34	9.960	BELAUNTZA			
BERASTEGI	1.056	18.560	8.104	26.663,56	16.405,94	43.070	BERASTEGI			
BERROBI	568	9.150	4.359	13.508,72	8.824,41	22.333	BERROBI	1.700.000,00	1.237.917,60	
ELDUAIN	239	4.115	1.834	5.949,48	3.713,09	9.663	ELDUAIN		462.082,40	
GAZTELU	171	3.617	1.312	4.929,57	2.656,64	7.586	GAZTELU			
HERNIALDE	350	10.539	2.686	13.224,92	5.437,58	18.662	HERNIALDE			
IBARRA	4.256	270.067	32.660	302.727,31	66.120,92	368.848	IBARRA			
IKAZTEGIETA	464	38.558	3.561	42.118,68	7.208,67	49.327	IKAZTEGIETA			
IRURA	1.671	107.144	12.823	119.967,13	25.960,54	145.928	IRURA			
LARRAUL	260	5.202	1.995	7.197,09	4.039,34	11.236	LARRAUL			
LEABURU	373	13.848	2.862	16.710,48	5.794,90	22.505	LEABURU			
LIZARTZA	640	15.180	4.911	20.091,72	9.943,00	30.035	LIZARTZA			
ORENDAIN	193	3.865	1.481	5.346,17	2.998,43	8.345	ORENDAIN			
OREXA	123	2.922	944	3.866,20	1.910,92	5.777	OREXA			
TOLOSA	18.936	788.430	145.313	933.743,12	294.188,37	1.227.931	TOLOSA			
VILLABONA	5.888	253.488	45.184	298.672,00	91.475,56	390.148	VILLABONA			
ZIZURKIL	2.997	147.155	22.999	170.153,83	46.561,18	216.715	ZIZURKIL			
TOLOSALDEA	61.258	2.610.818	470.089	3.080.906	951.700,00	4.032.606	TOLOSALDEA	1.700.000,00	1.237.917,60	

Puntu honetara iritsita, Lehendakariak hitza hartu du adierazteko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak aurtengo ekitaldirako errefusaren tratamendu kostuan aplikatuko duen igoerak itsustu egin dituela aurrekontu honetan aurkeztutako zenbakiak. 100.000€ inguru garestituko da udal ekarpenen zati aldakorra.

Ondoren, agertutako guztiek ados daudenez aurkeztutako espedientearekin eta emandako azalpenekin, Batzarrak, ahobatez,

### ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateko 2016. ekitaldirako aurrekontu espedientea eta dokumentu osagarriak hasiera batez onartzea.

**BIGARRENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateko 2016. ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hasiera batez onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateko 2016. ekitaldirako udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta udalen ekarpen sistema hasiera batez onartzea.

**LAUGARRENA.-** Aurrekontua, plantilla organikoa, lanpostuen zerrenda, udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta sistema hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Tolosaldeko Mankomunitateko iragarki taulan ipiniko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, Aurrekontua behin-betiko onartua kontsideratuko litzateke.

### **3. Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, hiri hondakinen eta garraio zerbitzuaren ingurukoa.**

2015eko uztailaren 30ean, Irurako udalak eskatu zion mankomunitateari zabor bilketa zerbitzua edukiontzien bitartez jaso ahal izateko ezarpenaren azterketa teknikoa eta ekonomikoa egitea. Era berean, 2015eko urriaren 16an, Tolosako udalak hondakinen zatiki batzuen (organikoa, errefusa eta komertzioetako kartoia) bilketa sistemaren aldaketa eskatu zion mankomunitateari.

Eskaera horien aurrean, teknikariak aurkeztu ditu txosten tekniko eta ekonomikoa, non jasotzen diren xehetasunez eskatutako aldaketaren ezaugarriak.

Guzti hau kontuan harturik, bi aukera kontsideratu dira:

1- Tolosako hondakinen bilketa aldaketa soilik.

2- Tolosa eta Irurako hondakinen bilketa aldaketa bateratua.

Zehazki, hauek dira Tolosako udalerrian aurrikusten diren aldaketak:

-Etxetako hondakin organikoa, errefusa eta sanitarioen bilketa atzeko kargako sistemen bitartez bertan behera uztea.

-Sortzaile bereziei zuzenduriko atez ateko hondakin organiko, kartoia eta errefusaren bilketak bertan behera uztea.

-Udalerrian sortutako hondakin organikoa eta errefusa albo kargako sistemen bitartez biltzea. Albo kargako sistemak eskatzen duen lurreko poltsen bilketa zerbitzua egitea.

-Komertzioetako kartoia bereziki herrian zehar identifikatuko diren puntuetatik jasotzea.



- Arraindegietan sortutako hondakin organikoa atez-ateko sistemaren bitartez jasotzea.
- Udalerriko hainbat tokitan papera eta ontzien gaikako bilketaren maiztasuna handitzea.

Zehazki, hauek dira Irurako udalerrian aurrikusitako aldaketak:

- Hondakin organiko, errefusa, papera, kartoi komertziala eta ontzien atez ateko bilketa sistema bertan behera uztea.
- Frakzio guzti horiek albo kargako edukiontzien bitartez jasotzea.

Kostuei dagokionez, ondorengoa izango litzateke aukera bakoitzarena:

1- Tolosa soilik: zabor bilketa osoaren egungo prezioa (BEZa barne) **3.080.906 €**koa da. Aipatutako aldaketek **53.921€**ko jaitsiera ekarriko lukete. Beraz, zabor bilketa osoaren prezio berria **3.026.985€**koa (BEZa barne) izango litzateke.

2- Tolosa eta Irura: zabor bilketa osoaren egungo prezioa (BEZa barne) **3.080.906 €**koa da. Aipatutako aldaketek **50.302€**ko jaitsiera ekarriko lukete. Beraz, zabor bilketa osoaren prezio berria **3.030.604€**koa (BEZa barne) izango litzateke.

Ondorioz, zabor bilketaren aldaketa:

- Tolosan bakarrik egiten bada, UTE TOLOSALDEA enpresarekin izenpetutako kontratuak **53.921€**, **BEZa barne**, jetsiera ekonomikoa izango du.
- Tolosan eta Iruran egiten bada, **50.302€**, **BEZa barne**, jetsiera izango du.

Orain arte, Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE TOLOSALDEA enpresaren artean izenpetutako kontratuak hiru aldaketa izan ditu, eta, aurrekoekin egin den bezala, oraingo aldaketa proposamena enpresarekin negoziatu da, akordio batera iritsi direlarik bi aldeak. Beraz, hurrengo pausoa Batzarraren esku geratzen da, aurkeztutako proposamen hau onartu dezan, hala balegokio.

Aipatu behar da Tolosa eta Irurak asumituko lituzketela zabor bilketa sistema berriak sortuko lituzkeen kostuak, mankomunitateko beste herriengan eraginik sortu gabe.

Lehendakariak hartu du hitza, adieraziz, aurreko gai zerrendako puntuan onartutako irizpideen arabera, bere talde politikoak aldaketaren alde bozkatu duela. Zortea opa die bi udalerriri hauei, baina, beraien bilketa tasak jaitsiko balira, neurri zuzentzaileak hartzeko alde azaldu da.

Tolosako ordezkariak beti birziklapenaren alde agertu direla dio, baina baita zabor bilketa ahalik eta merkeen egitearen alde, baliabide gutxiago erabiliz. Eskertu dio Lehendakariari zorte ona opa izana, eta beste herriei animatu die antzeko bilketa sistema eredia onartu dezaten.

Berastegiko ordezkariak galdetu du ea Tolosako sistema berrian zehaztuta dauden bilketa egunak eta papera zein ontzien edukiontziak leku gehiagotan ezarriko diren. Teknikariak erantzun dio egunero jasoko dela materia organikoa, batez ere erdigunean, nahiz eta egunero jornada bera ez den egingo. Bigarren galderari buruz, erantzun du ez dela aurreikusten edukiontzi gehiago jartzea, baina bai bilketa maiztasuna handitzea. Egunero hustuzea proposatu da, eta eguerditan erdigunea indartzea.

Tolosako ordezkariak gaineratzen du batez ere papera/kartoiaren bilketa indartu nahi dela, sortzaile berezien kartoia aparte jasoz. Egunero egingo da bilketa hau.

Berastegiko ordezkariak berriro hitza hartu du, galdetuz zenbat denbora beharko den jasotzeko Tolosako lurreko poltsak. Teknikariak erantzun dio bakarrik jaso egingo direla ahalik eta azkarren, eta langileak ez direla hasiko poltsak irekitzen.

Azkenik, Berastegiko ordezkariak zortea opa die Tolosa eta Irurako herriei, baina seguru dago %60ko birziklapen mailetara ez direla iritsiko, esperientziak kontrakoa azaltzen duelako.

Ondoren, proposamena bozkatzeari ekin zaio, honako emaitza atera delarik:

-Proposamenaren alde:22 boto (Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil).

-Proposamenaren kontra: ez dago.

-Abstentzioa: boto bat (Larraul).

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Batzarrak

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoko kudeaketa-kontratuaren aldaketa-espedita hasiera batean onartzea,

Tolosako udalerrian hondakin organikoa eta errefusa albo kargako sistemen bitartez biltzea eta Irurako udalerrian hondakin organiko, errefusa, papera, kartoi komertziala eta ontzien bilketa albo kargako edukiontzien bitartez, osaturik dagoelarik. Aldeko erantzuna jasoz gero esleipendunaren partetik, hasierako onespena behin betikotzat hartuko da.

**BIGARRENA.-** UTE TOLOSALDEArekin izenpetutako kontratua aldatzea, txostenaren arabera, non aldaketaren baldintzak jasotzen diren. Kontratu honen parte bezala proposamena eransten da.

**HIRUGARRENA.-** Aldaketa egin ondoren, urteko prezioa 50.302€tan jaistea, BEZa barne.

**LAUGARRENA.-** Aldaketaren hasiera data 2016ko otsailaren 11an finkatzea.

**BOSTGARRENA.-** Hasierako kontratua indarrean egongo dela xedatzea aldaketa honek modifikatzen ez duen bitartean.

**SEIGARRENA.-** Aldaketa gastua 2016ko Aurrekontu Orokorreko Proposamenean kontuan hartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Kontratuaren amaiera jatorrizkoarena izango dela adieraztea.

**ZORTZIGARRENA.-** Lehendakariari eskumena ematea xehetasunezko aldaketak egin ahal izateko, aldaketa behin betiko onartzeko eta kontratua gauzatzeko, beti ere kontu emanez Batzarrari.

#### **4. Kontratazio espedientea: Albo kargako edukiontzien bilketarako kamioiaren hornidura arautuko duen baldintza plegu administratibo eta teknikoaren onespena.**

Beharrezkoa ikusten da albo kargako edukiontzien bilketarako ibilgailu berri baten erosketa, kontuan harturik bai Tolosan eta baita Iruran ere mota horretako edukiontzia jarriko direla. Ibilgailu berriak gainontzeko herriei ere zerbitzua emango die.

Kontratuaren prezioa 240.000€-koa da, BEZa gabe. Kopurua handia denez, Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali beharko da lizitazio iragarkia. Izapide horrek luzatu egingo du prozedura, aurreikusten delarik 9-10 hilabete inguruko iraupena izango duela.

Prestatu dira baldintza plegu administratibo eta teknikoak, bertan baloratuko direlarik, prezioaz gain, ondorengo irizpideak: berme eta hornidura epea, karrozeria, motorra, laguntza teknikoaren zerbitzua, segurtasun sistemak...

Eguneroko bilketa zerbitzuak eskatzen duelako, bitartean proposatu da alokairuan albo kargako kamioi bat hartzea. Alokairuko kontratuak ibilgailu berria erosi arte iraungo du, hau da, urte bete inguru. Kontratu hau esleitzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua dirudi egokiena. Ibilgailuak zehaztaperen minimo batzuk bete beharko ditu, baldintza pleguetan ezarritakoaren arabera. Kontratuaren kostua 55.200 € dira, BEZa gabe, aurtengo aurrekontuko partida bat prestatu delarik finantzatzeko.

Idazkariak, puntu honetan, hitza hartu du gaineratzeko horrelako kamioiak stokean izatea zaila dela, baina baldintza plegutan, kamioia erabiltzen ez den bitartean gutxiago ordaintzea edo ez ordaintzea, hobekuntza bezala sartzea aztertzen ari dela mankomunitatea. Horrela, kostu gutxiago izango luke alokairuak.

Berastegiko ordezkariak jakin nahi du gastu orokorretara joango den kamioiaren finantzazioa. Teknikariak baiezkoa erantzun dio, herri guztiek orokorrean erabili ahal izango dutelako.

Ondorioz, batzarkideek ados daudenez aurkeztutako espedientearekin, Batzarrak, ahobatez,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Albo kargako edukiontzien bilketarako kamioiaren hornidura kontratuaren adjudikazio prozedura hastea, prozedura irekiaz.

**BIGARRENA.-** Kontratua eta adjudikazio prozesua arautu behar dituzten Baldintza Administratibo Partikularren eta Teknikoen Pleguak onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Kontratugile Profilan lizitazio-iragarkia argitaratzea, interesdunek egoki iruditzen zaizkien proposamenak berrogeita hamabi eguneko epean aurkez ditzaten.

**LAUGARRENA.-** Albo kargako edukiontzien bilketarako kamioiaren hornidura kontratua esleitu eta gauzatzeko ahalmen guztiak Lehendakariari ematea.

**BOSTGARRENA.-** Aipatutako kontratua esleitu eta gauzatu bitartean, albo kargako edukiontzien bilketarako kamioi baten alokairuko kontratazioa martxan jartzea, Lehendakariarengan eskuordetuz kontratuaren esleipena.

### **5. Galde-erreguak.**

Lehendakariak hitza hartu du aipatzeko Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioak zaborraren (errefusa eta organikoa) tratamenduagatik 2016rako ezarritako tarifen igoeragatik, eta baita organikoaren tratamenduagatik aplikatzen diren deskontuengatik (%15-35 bitartean, bildutako kopuruaren arabera). Hurrengo Batzar baterako proposamen bat aurkeztearen alde agertu da, aldaketa hauek era egoki batean aplikatu ahal izateko mankomunitatea osatzen duten herrietan.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta berrogeitamar direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**